


## 2012an, industria-jarduera jaitsi egin zen, oro har, Euskal AEko ia eskualde guztietan

***Hogei eskualdeetatik hemeretzitan, bilakaera negatiboa izan du erauzketaren eta manufakturaren industrian baliatutako langileen kopuruak***

Eustat erakundearen datuen arabera, Euskal AEko hogei eskualdeetatik hamazazpitan, bilakaera negatiboa izan du erauzketaren eta manufakturaren industrian baliatutako langileen kopuruak. Enkarterrik (+% 5,6), Goierri (+% 1,6) eta Aiaraldeak (+% 0,2) bakarrik izan dute bilakaera positiboa 2011ko datuen aldean.

Euskadiko erauzketaren eta manufakturaren industriak, bere osotasunean, % 6,0ko jaitsiera izan du salmentetan. Lurraldeka, Bizkaia izan da bilakaera txarrena izan duena (% 7,7); jarraian, Arabak (% 7,0), eta, azkenik, Gipuzkoak (% 2,8).

**Erauzketaren eta manufakturaren industriako salmenta garbien banaketa, eskualdeka. 2012. Milaka euro**



**Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Estatistika**

Arabaren, eskualde batek soilik izan du hazkunde-tasa positiboa; Aiaraldeak, hain zuzen (% 0,2). Bestalde, Gorbeialdeko eta Arabako Mendialdeko salmenten beherakadak nabarmenak izan dira, % 16,7 eta % 16,3 jaitsi baitira, hurrenez hurren. Arabako Lautadako salmentak lurralde historikoaren % 64 dira, eta eskualde horretan % 8,5 jaitsi dira salmentak.

Bizkaian, % 7,7 jaitsi dira salmentak. Lurralde historiko horretan, eskualde bakar batek izan du hazkunde-tasa positiboa: Enkarterrik % 5,6ko hazkundera izan du. Nabarmenezkoa da Gernika-Bermeoko jaitsiera bortitza, 2011ko datuekin alderatuz, -% 34,5eko tasa izan baitu.

Gipuzkoan, batez besteko jaitsiera % 2,8koa izan da. Bidasoa Beherean jaitsi dira salmentak gehien (% 11,9); Goierri, berriz, aurreko urtearekin alderatuta, hazkundera izan duen eskualde bakarra da (% 1,6).

### **Erauzketa eta manufaktura industriaren salmenta garbien banaketa, eskualdeka. 2012. Milaka euro**

|                                       | Pertsonal okupatua (kopurua) |                |             | Salmenta garbiak  |                   |             |
|---------------------------------------|------------------------------|----------------|-------------|-------------------|-------------------|-------------|
|                                       | 2011                         | 2012           | Δ 12/11     | 2011              | 2012              | Δ 12/11     |
| <b>Euskal AE</b>                      | <b>204.613</b>               | <b>194.664</b> | <b>-4,9</b> | <b>51.168.793</b> | <b>48.077.044</b> | <b>-6,0</b> |
| <b>Araba / Álava</b>                  | <b>42.003</b>                | <b>39.953</b>  | <b>-4,9</b> | <b>11.493.482</b> | <b>10.683.712</b> | <b>-7,0</b> |
| Arabako Ibarak/Valles Alaveses        | 2.283                        | 2.191          | -4,0        | 497.450           | 473.090           | -4,9        |
| Arabako Lautada/Llanada Alavesa       | 26.146                       | 24.423         | -6,6        | 7.480.610         | 6.847.032         | -8,5        |
| Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa    | 343                          | 330            | -3,8        | 75.414            | 63.098            | -16,3       |
| Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa        | 3.533                        | 3.570          | 1,0         | 848.212           | 843.500           | -0,6        |
| Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea | 2.741                        | 2.578          | -5,9        | 825.651           | 687.780           | -16,7       |
| Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa  | 6.957                        | 6.861          | -1,4        | 1.766.146         | 1.769.212         | 0,2         |
| <b>Bizkaia</b>                        | <b>82.430</b>                | <b>78.093</b>  | <b>-5,3</b> | <b>23.738.683</b> | <b>21.910.009</b> | <b>-7,7</b> |
| Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión       | 4.141                        | 3.930          | -5,1        | 880.530           | 849.166           | -3,6        |
| Bilbo Handia/Gran Bilbao              | 45.696                       | 43.179         | -5,5        | 16.244.477        | 15.124.083        | -6,9        |
| Durungaldea/Duranguésado              | 18.584                       | 17.886         | -3,8        | 3.855.148         | 3.586.897         | -7,0        |
| Enkartzioak/Encartaciones             | 1.638                        | 1.628          | -0,6        | 300.854           | 317.784           | 5,6         |
| Gernika-Bermeo                        | 3.787                        | 3.339          | -11,8       | 922.826           | 604.848           | -34,5       |
| Markina-Ondarroa                      | 3.599                        | 3.523          | -2,1        | 582.740           | 560.657           | -3,8        |
| Plentzia-Mungia                       | 4.985                        | 4.608          | -7,6        | 952.108           | 866.574           | -9,0        |
| <b>Gipuzkoa</b>                       | <b>80.180</b>                | <b>76.618</b>  | <b>-4,4</b> | <b>15.936.628</b> | <b>15.483.323</b> | <b>-2,8</b> |
| Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa          | 4.650                        | 4.315          | -7,2        | 726.562           | 640.337           | -11,9       |
| Deba Beherea/Bajo Deba                | 8.619                        | 8.202          | -4,8        | 1.394.505         | 1.291.347         | -7,4        |
| Deba Garaia/Alto Deba                 | 15.500                       | 15.260         | -1,5        | 3.053.165         | 3.017.354         | -1,2        |
| Donostialdea/Donostia-San Sebastián   | 20.213                       | 19.032         | -5,8        | 3.754.200         | 3.625.778         | -3,4        |
| Goierri                               | 12.693                       | 12.337         | -2,8        | 3.228.723         | 3.281.403         | 1,6         |
| Tolosaldea/Tolosa                     | 7.780                        | 7.455          | -4,2        | 1.699.082         | 1.625.163         | -4,4        |
| Urola-Kostaldea/Urola Costa           | 10.725                       | 10.017         | -6,6        | 2.080.390         | 2.001.941         | -3,8        |

**Iturria: Eustat – Euskal AEko Industria Estatistika**

Baliatutako langileen kopuruak ere ez du oso bilakaera positiboa izan, hogeit hamar urteetatik hemeretzi datu negatiboak baitituzte tasetan. Autonomia Erkidegoan, jaitsiera % 4,9 izan da batez beste, eta jokaera homogeneo samarra izan da lurraldeka: Bizkaiko jaitsiera izan da nabarmenena (-% 5,3), Arabaren (-% 4,9) eta Gipuzkoaren (-% 4,4) aldean.

Arabian, Arabar Errioxan bakarrik hazi da enplegatuen kopurua (+% 1,0). Daukan garrantzi erlatiboagatik, nabarmentzekoa da Arabako Lautadako enpleguan izandako jaitsiera (-% 6,6), eskualde horretan sektore hauetako langileen % 61 biltzen baita.

Bizkaian, eskualde guztietan jaitsi da langileen kopurua. Lurralde horretan, Gernika-Bermeo eskualdeko bilakaera negatiboa gailentzen da, % 11,8ko jaitsierarekin. Tasa negatiboetan arinena izan duen eskualdea Enkarterria da (-% 0,6).

Gipuzkoako egoera Bizkaiak duenaren antzekoa da, enpleguaren bilakaera negatiboa izan baita eskualde guztietan. Bidasoa Behereako eskualdea izan da lanpostu gehien galdu dituen (% 7,2), eta Debagoiena lanpostu gutxien galdu dituen (% 1,5).

### Metodologiaren inguruko oharra:

Sektoreak zehazteko, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) hartu dugu erreferentzia modura. Eskualdeen araberako desagregazioan, B (erauzketa-industria) eta C (manufaktura-industria) sekzioak bakarrik sartu ditugu.

---

#### Informazio gehiago:

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62*

*Euskal AEKo industria-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago*

*Euskal AEKo estatistika-estatistikari buruzko datu-bankua*